

Gure proiektua mendiko bota batzuegan datza, *Bioinetakoak* izenarekin. Baina ez betiko bota arruntak; hauek, material berriztagarriaz baliatzen dira. Mendian aurki daitezken oztopo guztiei aurre egiteko botak dira, urte luzeetan zehar. Hori gutxi balitz, abantaila ugari ditu. Lehen aipatu bezala gizakion jaurtitzaren dugun zaborrarekin eginikoak izango dira. Horrela, natura zainduko dugu, eta produktua sortzean ez ditugu horrenbeste hondakin sortuko. Norberak birziklapena egitea oso garrantzitsua da. Hori ez bada betetzen arazo larriak sortzen dira; gaur egun garbi dago erraustegiaren funtzioa. Hori saihestea da gure helburua. Halere, ez dugu guztia herritarren esku jarriko. Guk ere geure hautua egingo dugu: errekek, mendiak, hondartzak, itsasoak... garbituko ditugu, bertan dagoen zakar guztia hartuz.

Badakigu mendira joatea aisialdi nagusienetakoa dena, baita gustukoena ere. Zer hobe naturaz gozatzea zure oinetik hasita? Horregatik hautatu dugu proiektu honetan indarra eta ilusioa jartzea.

Guztiok bat eginik zulo beltza hau amaitzeko gai izango garelako!